ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2026ko uztailaren 10a, ostirala • 78 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## LAUDIOKO UDALA

**2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 4/2026 espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik. Behin betiko onespena. (Espedientea: 2026/1948)**

Igaro egin da hasierako onespena jendaurrean jartzeko epea, honako espediente honi dagokiona: 2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 4/2026 espedientea, kreditu gehigarriak ematearen ondoriozkoa, udalbatzak 2026ko maiatzaren 25eko osoko bilkuran onartutakoa. Horri buruzko erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez, behin betiko onetsi da.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15.3 artikuluan ezarritakoa betez, behin betiko erabaki hau oso-osorik argitaratzen da, eta argitaratu ondoren sartuko da indarrean.

Erabakiak honako hau dio, hitzez hitz:

“Udal Kontu-hartzailetza zerbitzu-unitatea 2026rako udal-aurrekontuak aldatzeko 4/2026 espedientea izapidetzen ari da, kreditu gehigarrien emakidaz, ebazpen honen xedapenetan adierazitako zehaztasunarekin.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauko 34. artikuluak ezartzen du kreditu gehigarria emateko izapideari eutsiko zaiola, zuzkitutako ordainketa-krediturik eduki gabe edo, kreditua egonaz, berau aski ez eta luzaezina bada, gasturen bat egin behar izan eta arau honetan araupetutako aldaketa erregimenaren bidez bete ezin denean, hurrengo ataletan adieraziko diren arauen arabera. Espedientean jasota dago arau horiek bete egin izana.

Proposatzen den kreditu gehigarria ematea, urtean zehar, udalaren aurrekontuaren ehuneko 5 etik gorako gehikuntza metagarria suposatzen du. Beraz, Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauaren 13. artikuluaren arabera, eta Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluaren arabera, hura onartzeko eskumena

Udalbatzari dagokio, eta aplikagarriak dira 3/2004 Foru Arauaren 15., 17. eta 18. Artikuluetan araututako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsoei buruzko arauak.

Ikusi egin da udal kontu-hartzaileak 2026ko maiatzaren 14an emandako MP 4/2026 txostena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 22. Artikuluak emandako ahalmenak erabiliz eta aldez aurretik Udal Kudeaketa Arloko Osoko Bilkurako Gaien Batzorde Informatibo Iraunkorraren irizpena izanda, osoko bilkurak hau

EBATZI DU

LEHENA. Onartzea 2026erako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 4/2026 espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik, 2025ko abenduaren 31ko diruzaintza orokorreko geldikinaren kargutan:

Kreditu gehigarriak

| ORGANIKO | PROGRAMA | ECONOMIKO | AZALPENA | KREDITU |
|---|---|---|---|---|
| 0201 | 3351 | 48104 | DIRULAGUNTZA AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA | 7.500,00 € |
| 0201 | 3351 | 48105 | DIRULAGUNTZA: ARABA EUSKARAZ | 1.000,00 € |
| 0201 | 3351 | 48106 | AIARALDEA KOOP. HITZARMENA: EKINTZA KULTURALAK | 10.000,00 € |
| 0201 | 3351 | 48107 | AIARALDEA KOOP. HITZARMENA: KOMUNIKABIDEA | 10.000,00 € |
| 0401 | 3341 | 48100 | DIRULAGUNTZA: SOLASTIAR ACTV. EKINTZA KULTURALAK | 4.444,00 € |
| 0401 | 3341 | 48101 | DIRULAGUNTZA: BASALARRINA EKINTZA KULTURALAK | 11.804,00 € |
| 0401 | 3341 | 48104 | DIRULAGUNTZA: RAKATAPLA S. Prudentzio Gastronomia Gabonak | 22.943,00 € |
| 0401 | 3341 | 48109 | DIRULAGUNTZA: ASOCIACION MICOLÓGICA – Aste mikologikoa | 2.777,00 € |
| 0401 | 3341 | 48111 | DIRULAGUNTZA: CR EXTREMEÑO - Extremadurako kultura sustatzea | 3.000,00 € |
| 0401 | 3341 | 48113 | DIRULAGUNTZA: CR. Extremeño - HERRIEN JAIALDIA | 15.000,00 € |
| 0401 | 3341 | 48114 | DIRULAGUNTZA: CR CASA ANDALUCIA - Andaluziako kultura sustatzea | 5.000,00 € |
| 0401 | 3341 | 48120 | DIRULAGUNTZA: ARATE TXAKURREN ETA EUSKAL KULTURA TRADIZIONALAREN LEHIAKETAK | 5.526,73 € |
| 0401 | 3341 | 48121 | DIRULAGUNTZA: CR CASTELLANO-LEONÉS - Gaztela eta Leongo kultura sustatzea | 3.000,00 € |
| 0401 | 3341 | 48129 | DIRULAGUNTZA: CR GALLEGO - kultura galegoaren sustapena | 3.000,00 € |
| 0401 | 3411 | 48117 | DIRULAGUNTZA: CLUB BOLA TOKI R. URQUIJO, URTEKO EKINTZAK | 4.235,32 € |
| 0401 | 3411 | 48118 | DIRULAGUNTZA: DEPORTIVO LAUDIO FUTBOL S. ROKETZAR | 59.900,00 € |
| 0401 | 3411 | 48119 | DIRULAGUNTZA: A PEÑA ALTZARRATE KIROL JARDUEREN ANTOLAKETA | 2.300,00 € |
| 0401 | 3411 | 48127 | DIRULAGUNTZA: LLODIANA TXIRRINDULARI ELKARTEAREN KIROL JARDUERAK | 18.172,87 € |
| 0401 | 3411 | 48128 | DIRULAGUNTZA: ATLETISMO CROSS | 12.678,75 € |
| 0401 | 3411 | 48140 | DIRULAGUNTZA: LAUZALDI HERRI KIROL ELKARTEA | 25.099,70 € |
| 0401 | 3411 | 48141 | DIRULAGUNTZA: GANBEGI 6-2 HOCKEY TALDEA | 5.031,17 € |
| 0401 | 3411 | 48143 | DIRULAGUNTZA: ARRIZKUZURI KIROL ELKARTEA | 5.433,75 € |
| 0401 | 3411 | 48144 | DIRULAGUNTZA: HERRIAREN PILOTA ELKARTEA | 13.680,33 € |
| 0401 | 3411 | 48148 | DIRULAGUNTZA: ALTZARRATE F. T. | 23.750,00 € |
| 0401 | 3411 | 48154 | DIRULAGUNTZA: ORKATZAK | 6.133,75 € |
| 0403 | 3381 | 48101 | DIRULAGUNTZA: SAN BLAS Kukutxe | 5.000,00 € |
| 0403 | 3381 | 48102 | DIRULAGUNTZA: DOLUMIN BARIKUA Aberedunak | 16.500,00 € |
| 0403 | 3381 | 48105 | DIRULAGUNTZA. Denon Txosna Sanrokeak | 17.000,00 € |
| 0403 | 3381 | 48116 | DIRULAGUNTZA: ITXARKUNDIA DANTZA TALDEA-DANTZA LEHIAKETA | 3.500,00 € |
| 0403 | 3381 | 48150 | DIRULAGUNTZA: ARETA - KIKE | 13.000,00 € |
| 0403 | 3381 | 48151 | DIRULAGUNTZA: UGARTE - UGAJAI | 13.000,00 € |
| 0403 | 3381 | 48152 | DIRULAGUNTZA: GARDEA - GARDEAR JAI ELKARTEA | 13.000,00 € |
| 0403 | 3381 | 48153 | DIRULAGUNTZA: LATIORRO - LATEORRO JAI BATZORDEA | 13.000,00 € |
| 0403 | 3381 | 48154 | DIRULAGUNTZA: S. JUAN - JON DEUNAREN JAI KOMISIOA | 13.000,00 € |
| 0403 | 3381 | 48155 | DIRULAGUNTZA: S. PEDROPEKO - SUZIRI JAI KOORD. | 13.000,00 € |
| 0403 | 3381 | 48156 | DIRULAGUNTZA: LAUDIOKO ERRALDOIAK | 100,00 € |
| 0501 | 4331 | 48100 | LAUDIO GROUP ENPRESA-DINAMIZAZIOKO EKINTZETARAKO DIRULAGUNTZA | 40.000,00 € |
| 0501 | 4331 | 48124 | DIRULAGUNTZA: APILL DIFUS. MERKATARITZA-JARDUERA | 60.000,00 € |
| 0502 | 4141 | 48101 | IRABAZI ASMORIK GABEKO EAME ELKARTEA EUSKAL ARDI MOZKETARI IKUSGARRITASUNA EMATEKO DIRULAGUNTZA | 1.000,00 € |
| 0502 | 4191 | 47101 | BEDARBIDE ABELTZAINTZARAKO DIRULAGUNTZA | 25.000,00 € |
| 0503 | 2419 | 48100 | ENPLEGU-PROGRAMAK - PRESTAKUNTZA | 330.000,00 € |
| 0601 | 2301 | 48102 | DIRULAGUNTZA: EUSKAL FONDOA, HERRIEN HAZKUNDE SOZIOEKONOMIKO | 30.000,00 € |
| 0601 | 2311 | 48100 | DIRULAGUNTZA: BULTZATU FUNDAZIOA LAGUNTZA TEKNIKOEN ZERBITZU | 10.000,00 € |
| 0601 | 2311 | 48123 | DIRULAGUNTZA: GURUTZE GORRIA GIZARTE ARLOKO PROGRAMAK GARATZ | 15.000,00 € |
| 0601 | 2311 | 48124 | DIRULAGUNTZA: ASASAM OSASUN MENTALERAKO PR | 10.000,00 € |
| 0602 | 3263 | 48116 | DIRULAGUNTZA LA MILAGROSA IKASTETXEA | 43.108,00 € |
| 0602 | 3264 | 48110 | DIRULAGUNTZA: LAUDIO IKASTOLA FUNTZIONAMENDU ETA MANTENTZE | 62.657,00 € |
| **KREDITUA GUZTIRA** | | | | **1.028.275,37€** |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Finantzaketa

2025ko abenduaren 31an gastu orokorretarako diruzaintzako geldikina txertatuta.

BIGARRENA. 2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 4/2026 espedientea, herritarrentzat ikusgai egongo da hamabost (15) egun baliodunez; horren aurretik, ALHAOn eta udaletxeko iragarkien taulan iragarki bat ipiniko da, Udalbatzaren Osoko Bilkuran erreklamazioak aurkezteko aukera egon dadin.

HIRUGARRENA. Oneste-erabaki hau behin betikotzat joko da ez bada horren aurkako erreklamaziorik aurkezten herritarrentzat ikusgai dagoen epean. Hortaz, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 16. Artikuluan xedatutakoa betetzen denean sartuko da indarrean erabaki hau. Erreklamaziorik badago, hilabeteko epea izango du Udalbatzarrak horiek ebazteko".

Ebazpen hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Vitoria-Gasteizen, txandaren arabera egokitzen den Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horretarako, bi (2) hilabeteko epea dago, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

Laudion, 2026ko uztailaren 3an

*Alkate-udalburua*
*AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.07.10 05:10:54 Z